

## **LEKEITIOKO UDALAK 18-35 URTE BITARTEKO GAZTEEI ETXEBIZITZA ALOKAIRURAKO DIRU-LAGUNTZAK EMANGO DIZKIE**

Pasa den martxoaren 1ean burututako Osoko Bilkuran Lekeition bizi diren 18-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak ematea arautzen duen udal ordenantzak aldaketak egitea onartu zen.

Ukaezina da etxebizitza eskuratzeko arazoa dela gazteek emantzipatzeko daukaten oztopo nagusienetakoa eta beraz, Lekeitioko Udalak ahaleginak egin behar ditu etxebizitza politika publikoaren bidez alokairua sustatzeko.

Izan ere, alokairua sustatzea funtsezkoa da etxebizitza eskuragarriagoa izan dadin. Horregatik lan egin beharra dago etxebizitza arloan konponbideak eskaintzeko. Zehazki arrazoizko prezioan alokairuan emateko etxebizitzaren aldeko apustua egin beharra dago eta eskubide hori bermatzeko ezinbestean administrazioa subjektu aktiboa izan behar da.

Hori dela eta, pasa den urtean Lekeitioko Udal Gobernuak 18 - 35 urte bitarteko adina duten eta Lekeition bizi diren gazteei zuzendutako etxebizitzaren alokairurako diru-laguntzak martxan ipini zituen. **Lehenengo aldia zen Lekeitioko Udalak mota honetako diru-laguntzak martxan jartzen zituena.**

Aurtengo urtean, oster, aurrekontua 10.000.-eurotan igo da eta beraz, guztira 25.000.-euro bideratuko dira (bateragarriak dira beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik ematen dituzten aldi bereko diru-laguntzarekin).

Gazteei zuzendutako diru-laguntza programa honekin lortu nahi dena da behar diren egoerak sustatzea gure gazteek arrazoizko prezioan etxebizitzak errentan hartu ahal izan dezaten eta, horrela, **AUTONOMIA** eta **EMANTZIPATZEA** lortzen laguntzea.

### **DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO BALDINTZAK**

Aipatutako **diru-laguntza eskatzeko ezinbestean 18 - 35 urte bitarteko adina izan behar dute elkarbizitza unitateko kide guztiek**, unitate horretan bizi diren menpeko adin txikikoak izan ezik, eta elkarbizitza unitatea osatzen duten pertsonetako **bat gutxienez Lekeitioko udalerrian** egon beharko da **errolatuta, gutxienez bi urteko etenik gabeko antzinasunarekin**.

Gainera, diruz lagunduko den **etxebizitza Lekeitioko udal mugartean egon beharko da** eta dagokion bizigarritasun baimena izan beharko du. Hala ere, **salbuetsita egongo dira hilean 650,00.-euroko zenbatekoa gainditzen duten alokairuko etxebizitzak** eta urte bete baino gutxiagoko iraupena duten alokairu kontratuak.

Bestalde, elkarbizitza unitateko eskatzaile edo kide batek ere ez du izan behar bere jabetzako etxebizitzarik, elkarbizitza unitateko pertsona guztiak diruz lagunduko den etxebizitzan errolatuta egon behar dira alokairu kontratua formalizatutakoan, kontratua elkarbizitza-unitateko kide guztien izenean egon behar da eta onuradunaren eta errentatzailearen artean ez da egon behar inongo familia-loturarik odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren mailaraino.

Beste baldintzetako bat da elkarbizitza unitateko diru-sarrerek ezin izango dutela gainditu 25.000.-euro gordin urtean (kide bakarraren kasuan) edo 35.000.-euro gordin urtean (bi kide

edo gehiagoren kasuan). Banandutako edo dibortziatutako pertsonen kasuan, diru-sarreraren guztirako zenbatekoa kalkulatzeko beharrezkoak izango dira umeentzako mantendu pentsioari eta hileroko hipoteka kuotei dagozkien zenbatekoak.

### **DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

2018. urtean deialdi honetarako aurreikusitako kopuru osoa 25.000,00.-eurokoa da eta gazteei zuzendutako alokairurako laguntza hauek bateragarriak dira beste erakunde batzuek kontzeptu beragatik ematen dituzten aldi bereko diru-laguntzarekin.

Diru-laguntzaren zenbatekoa gehienez ere hilabete bakoitzeko 100,00 eurokoa izango da eskaera bakoitzeko eta gehienez 12 hilabeteko epealdi baterako.

### **ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK**

Etxebizitzaren alokairurako 2018ko diru-laguntzen deialdirako **eskaera epea martxoaren 19an irekiko da eta hauek aurkezteko azken eguna 2018ko** azaroaren 16an izango da. Eskerak Lekeitioko Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira (Gamarra kalea 1), edo, bestela, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16. artikulua baimendutako edozein modutan eta, horrekin batera, araudian zehaztutako dokumentazioa gehitu beharko da.

Informazio gehiago [www.lekeitio.eus](http://www.lekeitio.eus) webgunean.